



Bertaratuak:

**D. Santiago Álvarez Folgueras**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteon Federazioen ordezkaria HERRIKOA

**D. Iñaki Berasategi Zurutuza**

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria LAB

**D. Francisco José Flores Pérez**

Representante de las asociaciones

Empresariales/Enpresari elkarteon ordezkaria

**D. Estebe Petrizan Iriarte**

Representante de la Administración

Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**D<sup>a</sup>. Esther Monterrubio Ariznabarreta**

Representante de la Administración

Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**D<sup>a</sup>. Pilar Elcarte Elcarte**

Representante de la Administración

Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**D. Alfredo Hoyuelos Planillo**

Personalidad de reconocido prestigio/Aitortutako ospea duen pertsonalitatea

**D<sup>a</sup>. Aurora Bernal Martínez de Soria**

Representante de las Universidades

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30aren 17:10 direlarik, Eskola Kontseiluko egoitzan (Kale Nagusia, 56 – Ezpeleta Jauregia) Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko Osoko Bilkura biltzen da, Aitor Etxarte Berezibar Jaunaren lehendakaritzapean, ondoan agertzen diren kideen presentziarekin, eta Fermin Casado Leoz Jn. Idazkari bezala, hurrengo gai-zerrendarekin:

1. Aurreko bileraren akta berraztertu eta, hala behar bada, onetsi.
2. Lehendakariaren informazio orokorra.
3. 31/2016 Irizpenaren inguruko eztabaida eta, hala behar bada, onespena: Oinarrizko L.H. ziklo eta Tailer Profesionaletan ordenazioaren gaineko F.A. proiektua.
4. 32/2016 Irizpenaren inguruko eztabaida eta, hala behar bada, onespena: Oinarrizko L.H. ziklo eta Tailer Profesionaletan onarpenaren gaineko F.A. proiektua.
5. 33/2016 Irizpenaren inguruko eztabaida eta, hala behar bada, onespena: formakuntza programak-Tailer Profesionalen gaineko F.A. proiektua.
6. 34/2016 Irizpenaren inguruko eztabaida eta, hala behar bada, onespena: osasun sexualeko prestazioen ordenazioaren gaineko F.D. proiektua.
7. 35/2016 Irizpenaren inguruko eztabaida eta, hala behar bada, onespena: Sarrigureneko F.D. proiektuaren gainekoa.
8. NHSTren batzordea.
9. Langile Batzordearen idatzia – Nukleo Administrazioa (Zaintzaileak).
10. Galde-eskeak.



/Unibertsitateen ordezkaria. Universidad de Navarra/Nafarroako Unibertsitatea

**D. Fernando Barainca Lagos**

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen ordezkaria FSIE-SEPNA

**D. Jesús M<sup>a</sup> Ezponda Iradier**

Representante de Directores y Directoras de centros docentes privados

concertados/Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria

**D. Javier Albizu Sanz**

Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

**D<sup>a</sup> Lourdes Larunbe Arretxe**

Representante del Personal de Administración y Servicios de los centros Docentes/Ikastetxeetako Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria

**D. Ignacio M<sup>a</sup> Iraizoz Zubeldía**

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE

**D. Juan Ramón Elorz Domezain**

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**D. Ignacio Toni Echeverría**



Representante de las Personas con discapacidad de Navarra/Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen ordezkaria/ CORMIN

**D<sup>a</sup> Camino Bueno Zamarbide**

Representante de Directores y Directoras de centros docentes públicos/lkastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

**D. José María Carrillo Álvarez**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria HERRIKOA

**D. Sergio Gómez Salvador**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria CONCAPA

**D. Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgala**

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**D. Jorge Lanchas Rivero**

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE

**Dña. Miren Aranoa Astigarraga**

Representante del Parlamento de



Navarra/Nafarroako Parlamentuaren  
ordezkaria (EH BILDU)

**Dña. M<sup>a</sup> Luisa de Simón Caballero**

Representante del Parlamento de

Navarra/Nafarroako Parlamentuaren  
ordezkaria (I-E)

**D. Pedro María Baile Torrea**

Representantes de las Federaciones de  
Asociaciones de Padres y Madres/  
Ikasleen Gurasoen Elkarteen  
Federazioen ordezkaria CONCAPA

**D<sup>a</sup> Cristina Bayona Saez**

Representante de las

Universidades/Univertsitateen ordezkaria  
UPNA

**D. Josu Repáraz Leiza**

Representante de las entidades titulares

de centros privados de Navarra-  
Federación de Ikastolas de  
Navarra/Nafarroako ikastetxe  
pribatuetako entitate titularren ordezkaria-  
Nafarroako Ikastolen Elkartea

**D. Ernesto Delas Villanueva**

Representante de las Federaciones de

Asociaciones de Padres y

Madres/ Ikasleen Gurasoen Elkarteen  
Federazioen ordezkaria SORTZEN

Bere absentzia desenkusutzen dute:



**D.ª Mª José Anaut Couso An.**

Representante de las organizaciones  
sindicales/Sindikatuuen ordezkaria/UGT

**D.ª. Sonia Cabrero del Amo**

Representante de las Asociaciones que  
trabajan por la igualdad/Berdintasunaren  
alde lan egiten duten elkarteen ordezkaria

**D.ª Mª Soledad Garjón López**

Representante del profesorado de  
centros públicos/Ikastetxe Publikoetako  
Irakasleen ordezkaria AFAPNA

**D. Josu Millán Bargodá**

Representante del alumnado de los  
niveles no universitarios de los centros  
públicos de Navarra/ Unibertsitate  
aurreko hezkuntza publikoaren ikasleen  
ordezkaria

**D. Juan Larraza Pérez-Salazar**

Representante del alumnado de los  
niveles no universitarios de los centros  
privados de Navarra/ Unibertsitate  
aurreko hezkuntza pribatuaren ikasleen  
ordezkaria.

**D.ª Carmela Muñoz Ventura**

Representante del profesorado de  
centros privados/Ikastetxe Pribatuetako  
Ikarasleen ordezkaria FETE-UGT

**D.ª. Amaia Zubieta Garcíandia**

Representante del profesorado de  
centros públicos/Ikastetxe Publikoetako  
Irakasleen ordezkaria STEE-EILAS



Ez ziren bertaratu:

**D. Francisco Javier Pérez Cueva**

Representante de las entidades  
locales/Toki entitateen ordezkaria

**1. Aurreko bileraren akta berraztertu eta, hala behar bada, onetsi.**

Lehendakariak ea 2016ko apirilaren 27an burututako Osoko Bilkuraren aktan jasotakoari eragozpenen bat adierazi nahi al duenik galdetzen du.

E-mailez bidalitako zuzenketa txikiari buruz galdetzen du Camino Buenok, Lehendakariak behin-betiko aktari jada gehitu zaiola erantzuten dio.

Akta, zuzenketa horrekin onesten da.

**2. Lehendakariaren informazio orokorra.**

Aurreko Osoko Bilkuratik burututako ekintzen berri ematen du Lehendakariak. IDEA aldizkarian lanean jarraitzen ari dela adierazten du, ekainean argitaratuko dena. "Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman" monografia bukatu dela eta hurrengo asteazkenean Ezpeleta Jauregiko Areto Nagusian aurkeztuko dela dio.

Era berean, maiatzaren 18an Batzorde Iraunkorrean irizpendutako 25 lege arau proiektuen berri ematen du.



Azkenik, Iruñean burututako jarraipena diren Tuterako 0-6 jardunaldien garapenaren inguruan informatzen du, edukiaren deskripzio labur bat eginez.

### **3. 31/2016 Irizpenaren inguruko eztabaida eta, hala behar bada, onespena: Oinarrizko L.H. ziklo eta Tailer Profesioaletan ordenazioaren gaineko F.A. proiektua**

Arau proiektuaren azalpena ematen du Esther Monterrubiok, hala nola LHBaren 2 modalitateen segregazioak sortu dituen arazoena. Ondorioz, modalitate bakarrean batzea beharrezkoa da eta bere sarrera arautu. Taller Profesioaletan gauza bera gertatu da, horregatik, bakoitzarentzat araudi erregulatzailleak tramitatzea justifikatzen du.

Ondoren, aurkeztutako zuzenketen azterketara pasatzen da.

1. zuzenketa. Santiago Álvarezek azaltzen du, zuzenketa honek finkatu nahi duena da 15 urteko ikasleek DBH gainditzeko baliabideak dira, LHB-kora bidali aurretik. LHB-k PCPI zaharrak ordezkatu beharko lituzke bakarrik.

Esther Monterrubiok dio proiektu honek LOEren araudi basikoa kopiazen duela soilik, baina honek ez duela esan nahi ikasleentzako egokiena dena ez dela egingo, orientatzaile, tutore eta gurasoen iritzia kontutan izanik.

Zuzenketa bozkatu ondoren, ondoko emaitza jasotzen du:

Aldeko botoak: 8; aurkako botoak: 17; Abstentzioak: 3.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

2. zuzenketa. Camino Buenok zuzenketa azaltzen du, bere helburua terminologia batzea dela zehaztuz. Gainera, onarpen AFren terminologia bat dator berak proposatzen duenarekin.

Zuzenketa bozkatu ondoren, emaitza hau lortzen du:

Aldeko botoak: 27, Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.



Ondorioz, zuzenketa onartzen da.

3. zuzenketa. Testuak ohartarazitako akatsa azaltzen du Santiago Álvarezek, eta zuzenketa bozkatzera pasatzen da, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 27; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.

4. zuzenketa. Santiago Álvarezek dio zuzenketa honek azpimarratu nahi duena da familiei egin beharreko Kontseilu Orientatzailea dela dio, sakona izan behar dena, eta familiekin konta behar duenak.

Esther Monterrubiok dio Santiagok eskatzen duena jada egiten dela, eta ondorioz, artikuluei gehitzea ez duela ezer berririk ekarriko. Kontseilu Orientatzaileari buruz hitz egiten den eranskinean ekintza hauek ITEMS bezala agertzen dira.

Estebe Petrizanek aurrekoa berresten du, honelako erabaki bat familiekin oso aztertua eta hitz egina dagoela azpimarratuz.

Jorge Lanchasek zehazten du, zentro jasotzaileak zentro igorletik jasotzen duen ikasleriaren informazioa osatu gabekoa denaren kasu batzuk ezagutzen dituela. Bere ustez, gurasoei informazioa ongi heltzen zaio, baina LHko zentro jasotzailearekin ere oso argi izan beharko zen.

Zuzenketa bozkatu ondoren, emaitza honako hau da:

Aldeko botoak: 10; Aurkako botoak: 12; Abstentzioak: 5.

Ondorioz, zuzenketa baztertzen da.

5. zuzenketa. Generozko hizkuntzako akatsa azaltzen du Camino Buenok, eta zuzenketa bozkatzen da.

Aldeko botoak: 27; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.

Ondorioz, zuzenketa onartzen da.





6. zuzenketa. Camino Buenok zuzenketa adierazten du, eta ratio gehienak ordezkatzera proposatzen du, ikasleen kopurua 14tik 12ra pasatuz, eta 16ra eramateko salbuespen berezia ezabatuz. Hori, ikasleria honen berezitasuna dela eta, arreta pertsonalizatua behar baitute.

Neurria ekonomikoki balioztatzeko denborarik egon ez dela dio Mikel Fernándezek, eta plantillak konfiguratzen ari direla jada. Honi, Camino Buenok erantzuten dio LHko zentroak aldarrikapen hau planteatu dutela proiektua gardentasunean zegoen bitartean, eta ekarpenak baztertu direla.

Juan Ramón Elorzek dio ratioak murriztea neurri ona dela beti, berez, Haur eta Lehen Hezkuntzan murriztu egin dira, baina ikusi beharko dela noiz egin ahal zaion aurre neurri honi, orain ez delako posible.

Esther Monterrubiok baieztapen honekin bat dator, Departamentuari ere murrizketa hau gustatuko litzaiokeelako.

Jorge Lanchasek esaten du espezialitate batzuentzako oso beharrezkoa dela, eta gastuari ahal bezain laster aurre egin behar zitzaiola.

Mikel Fernándezek esaten du Irabazi Asmorik Gabeko Erakundeetatik ratioa 16ra ez igotzea eskatu zela, eta hori betetzen saiatu direla. Gainera, kasu batzuetan 4 edota 2 ikasletako taldeak daude, eta ondorioz, eskaera osoa atenditzen saiatuko da ere.

Camino Buenok zuzenketaren asmoak beharrezkoa eskaintzen du eta bakarrik 16en salbuespena ezabatzea, Departamentuak onartzen badu.

Estebe Petrizanek 16ra ratio igotzea beharrezkoa izan daitekeela, kasu zehatzetan, dio (adibidez, ikasle berri bat etortzen bada eta taldea jada 14 ikasle baditu, ez litzateke ona izango hortik at uztea).

Zuzenketa bozkatuta, ondoko emaitza jasotzen du:



Aldeko botoak: 17, Aurkako botoak: 5; Abstentzioak: 5.

Ondorioz, zuzenketa onartzen da.

7. zuzenketa. Zuzenketa azaltzen du Santiago Álvarezek, ikasle errepikatzailak kontutan dituen edo ez, ez baitago argi. Esther Monterrubiok dagokien argibideak egin ondoren, bozkutzen da, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 25; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 2.

Ondorioz, zuzenketa onartzen da.

8. zuzenketa. Zuzenketa azaltzen du Camino Buenok, testuan C1 mailaz hitz egiten dela azpimarratuz, aurrekoan bakarrik B2a eskatzen zelarik.

Botazioaren ondoren, emaitza hau da:

Aldeko botoak: 27; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.

Ondorioz, zuzenketa onartzen da.

9. zuzenketa. Hizkuntzako akatsa azaltzen du Camino Buenok. Ondoren, zuzenketa botatzen da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: 27; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.

Ondorioz, zuzenketa onartzen da.

10. zuzenketa. Hizkuntzako akatsa azaltzen du Camino Buenok. Ondoren, zuzenketa botatzen da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: 27; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.

Ondorioz, zuzenketa onartzen da.

11. zuzenketa. Santiago Álvarezek zuzenketa azaltzen du, familiei emandako informaziodun zutabeak gehitzeko eskatuz, hala nola proposatutako neurrien justifikazioa.



Estebe Petrizanek dio ekintza hauek jada egiten direla, LHBko ikasleria deribatzeneko protokoloan jarraitzen dira. Esther Monterrubiok dio zutabe hauek ez diotela deus gehitzen txostenaren edukiari, bertan, ikasleriarekin hartutako neurrien gaineko informazio guztia baitatza.

Estebe Petrizanek hau familie bidaltzen dela beti azpimarratzen du, ondorioz, data ez du garrantzirik.

Ignacio M<sup>a</sup> Iraizozek dio ez dela erraza irakasle eta gurasoen arteko bilera guztien kontrola eramatea, eta irakasleentzako lan erantsia izango litzatekeela datak kontrolatzea.

Mikel Fernándezek dio, hori sistema burokratizatzea suposatuko lukeela, eta familiak ez direla informazio faltagatik kexu, osatuta jasotzen baitute, eta datak jartzea gauzak korapilatuko lituzkeela.

Javier Albizu bat dator Santiago Álvarezekin, bilera bakoitzeko data jartzea ez dela deus kostatzen dio.

Zuzenketa bozkatu ondoren, hau da emaitza:

Aldeko botoak: 6; Aurkako botoak: 16; Abstentzioak: 5.

Ondorioz, zuzenketa baztertzen da.

12. zuzenketa. Santiago Álvarezek zuzenketa azaltzen du, LHBko ikasleriaren eskolatze proposamena baztertzeko justifikazioa Ikuskaritza aldetik gehitzen duen aukera bat lortu nahi duena. Aurreko zuzenketarekin koherentea da.

Esther Monterrubiok dio “zehaztasun falta” aukera onartu litzatekeela, 2. aukerari gehituta. Azkeneko aukera hau bozkatzen da, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 27; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.

Ondorioz, esandako xehetasunarekin onartzen da.



Azkenik, 31/2016 Irizpena bozkatzen da, bere osotasunean, onartua dena ondoko emaitzekin:

Aldeko botoak: 24; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 3.

Beraz, 31/2016 Irizpena onartzen da.

**4. 32/2016 Irizpenaren inguruko eztabaida eta, hala behar bada, onespena: Oinarrizko L.H. ziklo eta Tailer Profesionaletan onarpenaren gaineko F.A. proiektua.**

Zuzenean, aurkeztutako zuzenketa bozkatzen dira.

1. Zuzenketa. Zuzenketa bozkatu ondoren, ondoko emaitzak ditu:

Aldeko botoak: 6; Aurkako botoak: 17; Abstentzioak: 3.

Ondorioz, zuzenketa baztertzen da.

2. zuzenketa. Camino Buenok zuzenketa aurkezten du, lehen eztabaidatutakoaren antzekoa, LHBko ratioen ingurukoa.

Zuzenketa bozkatu ondoren, ondoko emaitza jasotzen da:

Aldeko botoak: 17; Aurkako botoak: 6; Abstentzioak: 3.

Beraz, zuzenketa onartzen da.

3. zuzenketa. Bere proposamenak semantikan duen hobekuntza azaltzen du Camino Buenok, egin zuena eta onartua izan zenaren antzekoa dena, LH onartzearen AFren tramitazioan.

Zuzenketa bozkatu ondoren, ondoko emaitza jasotzen du:

Aldeko botoak: 26; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.

Ondorioz, zuzenketa onartzen da.



4. zuzenketa. Santiago Álvarezek kentzen du, antzekoa zen bat jada baztertua izan delako.

5. zuzenketa. DBH 2. mailako ikasleriaren proposamenak duen salbuespen izaera azpimarratu nahi du Santiago Álvarezek. Esther Monterrubiok erantzuten dio salbuespen izaera hau jada jasota dagoela eta zuzenketa hau gehitzea errepikakorra izango litzatekeela.

Zuzenketa bozkatu ondoren, ondoko emaitza jasotzen da:

Aldeko botoak: 5; Aurkako botoak: 15; Abstentzioak: 5.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

6. zuzenketa. Santiago Álvarezek bere zuzenketa azaltzen du, LHBren ikasleriaren inskripziorako lehentasun-ordena berria finkatzen duena.

Esther Monterrubiok dio adina ez lukeela faktore bat izan beharko, eta Nafarroan, beste Autonomi Erkidegoetan ez bezala, 17 urtetako ikasleriak Tailer Profesionaletara sartzeko aukera duela.

Estebe Petrizanek gehitzen du, adinaz gain, badaudela adinez gainera kontutan izateko banakako txostenak ikasle bakoitzeko.

Camino Buenok dio Nafarroan esperientzia asko dagoela ikasleak LHB, edo lehen PCPI zenetara, deribatzeke, eta saiatzen dena da esperientzia hau araudi batean islatzea.

Zuzenketa bozkatuta, ondoko emaitzak jasotzen dira:

Aldeko botoak: 4; Aurkako botoak: 18; Abstentzioak: 3.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

7. zuzenketa. Akats bat zuzentzea dela dio Santiago Álvarezek.

Zuzenketa bozkatuta, ondoko emaitzak jasotzen dira:



Aldeko botoak: 26; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.

Beraz, zuzenketa onartzen da..

8. zuzenketa. Camino Buenok zuzenketa azaltzen du, hizkuntza akats baten ingurukoa.

Zuzenketa bozkatuta, ondoko emaitzak jasotzen dira:

Aldeko botoak: 26; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.

Beraz, zuzenketa onartzen da.

9. zuzenketa. Aurretik bozkatutakoeki koherentziagatik, proposatzaileak kentzen du.

Azkenik, 32/2016 Irizpena, bere osotasunean bozkatzen da, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 23; Aurkako botoak: 4; Abstentzioak: 0.

Ondorioz, 32/2016 Irizpena onartzen da.

**5. 33/2016 Irizpenaren inguruko eztabaida eta, hala behar bada, onespena: formakuntza programak-Tailer Profesionalen gaineko F.A. proiektua.**

Esther Monterrubioak araudi proiektua azaltzen du, eta ondoren Camino Buenok bere zuzenketa, hizkuntza akats batean oinarritua.

Zuzenketa bozkatuta, ondoko emaitzak jasotzen dira:

Aldeko botoak: 25; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.

Beraz, zuzenketa onartzen da.

Azkenik, 33/2016 irizpena, bere osotasunean bozkatzen da, ondoko emaitzarekin onartua dena:

Aldeko botoak: 25; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.

Beraz, 33/2016 irizpena onartzen da.



**6. 34/2016 Irizpenaren inguruko eztabaida eta, hala behar bada, onespena: osasun sexualeko prestazioen ordenazioaren gaineko F.D. proiektua.**

Araudi proiektuaren alderdiak azaltzen ditu Roberto Pérezek, Hezkuntza Departamentuari dagokionez eta Osasun Sexuala eta Ugalketaren 2/2010 LOK garatzen duena. Hezkuntza Departamentuak garatu beharko dituen neurriak planteatzen dituela proiektuak dio. Ondoren, zuzenketen azterketa egiten da.

1. zuzenketa. Jesús M<sup>a</sup> Ezpondak bere zuzenketa azaltzen du, ez duelako uste Hezkuntza Departamentuak arau honen gaineko ahalmena duenik. Bere ustez, proiektuan jasotako neurri batzuk ezberdintasun ideologikoak dituzte.

Sergio Gómezek dio CONCAPAK berak eskatu zuela proiektua Eskola Kontseiluan kontsulta zedin, baina uste du araua era zehatzagoan garatu beharko litzatekeela berataz hitz egiteko.

Fernando Baraicak azpimarratzen du, Sergio Gómezek bezala, lehenengo aldia dela beste Departamentu batek Kontseilura eramaten duela horrelako proiektu bat. Bere ustez, proiektua osatu gabe dago, planteatzen diren gaiak ez daudelako era nahikoan garatuak ezta Hezkuntza komunitatearekin tratatuak ere.

Araudi proiektuaren gainean irizpena egitea beharrezkoa edo ez den eztabaidatzen da. Zentzu honetan, Francisco José Floresek ere uste du, Jesús M<sup>a</sup> Ezpondak bezala, ez luketeela horren gainean irizpenik egin behar.

Marisa de Simónek uste du Kontseiluak bai eman beharko lukeela irizpen bat, eta bat ez datozen pertsonak boto partikularra jarri ahal dutela.



Alfredo Hoyuelosek aberasgarria dela uste du Eskola Kontseiluak beste Departamentuetako araudi proiektuen gainean ekarpenak egitea, hauek ez direlako finkoak izan behar.

Estebe Petrizanek dio Departamentuak proiektuari jada ekarpenak egin dituela eta orain dela urte batzuk garatu behar izan zen araua dela. Proiektua tratatzearen alde azaltzen da, osasunarekin zerikusi izango lukeen beste gai bat izango balitz (adibidez, diabetesen tratamendua, erizainak zentroetan sartzea), hezkuntza sexualak sortzen duen eztabaidarik gabe, ez zen sortuko irizpena ematearen eztabaida hau.

Jesús M<sup>a</sup> Ezpondak berriz nabarmentzen du hezkuntza eremuko proiektu zehatza dagoenean irizpena ematea gustatuko litzaiokeela, honi, Francisco José Floresek gehitzen du ezin dela irizpenik eman hezkuntza alderdien gaineko artikulatu bakar bat duen proiektu baten gainean. Ondoren, aurkeztutako zuzenketak bozkatzen dira.

#### 1. zuzenketa.

Zuzenketa bozkatuta, ondoko emaitzak jasotzen dira:

Aldeko botoak: 7; Aurkako botoak: 18; Abstentzioak: 1.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

#### 2. zuzenketa.

Zuzenketa bozkatuta, ondoko emaitzak jasotzen dira:

Aldeko botoak: 7; Aurkako botoak: 18; Abstentzioak: 1.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

#### 3. zuzenketa.

Zuzenketa bozkatuta, ondoko emaitzak jasotzen dira:

Aldeko botoak: 7; Aurkako botoak: 18; Abstentzioak: 1.





Beraz, zuzenketa baztertzen da.

4. zuzenketa. Sergio Gómezek zuzenketa azaldu ondoren, ondoko emaitza jasotzen du bozkaketak:

Aldeko botoak: 5; Aurkako botoak: 19; Abstentzioak: 2.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

5. zuzenketa.

Zuzenketa bozkatuta, ondoko emaitzak jasotzen dira:

Aldeko botoak: 6; Aurkako botoak: 15; Abstentzioak: 4.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

6. zuzenketa. Sergio Gómezek motibazioa azaltzen du eta ondoren bozkatzen da, ondoko emaitza lortzen du:

Aldeko botoak: 1; Aurkako botoak: 22; Abstentzioak: 3.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

7. zuzenketa. Fernando Baraincak zuzenketa azaltzen du, proiektua ez dagoela Hezkuntza komunitateari zuzenduta, eta Hezkuntza Departamentuak asmo handiagoko proiektu bat bilatu eta landu behar duela, osasun sexuala baino urrunago doana, eta osasunaren eremu guztiak bereganatzen diseinua. Gainera, Hezkuntza Departamentuak ez luke materialak zentzoei eman behar.

Alfredo Hoyuelosek dio funts publikoekin horrela izan beharko lukeela.

Zuzenketa bozkatuta, ondoko emaitzak jasotzen dira:

Aldeko botoak: 5; Aurkako botoak: 19; Abstentzioak: 2.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

8. zuzenketa. Sergio Gómezek zuzenketa azaltzen du, eta bozkatzen da.



Aldeko botoak: 7; Aurkako botoak: 16; Abstentzioak: 2.

Ondorioz, zuzenketa baztertzen da.

9. zuzenketa. Sergio Gómezek zuzenketa azaltzen du, eta bozkutzen da.

Aldeko botoak: 7; Aurkako botoak: 17; Abstentzioak: 0.

Ondorioz, zuzenketa baztertzen da.

10. zuzenketa. Sergio Gómezek erretiraten du, aurreko emaitza ikusita.

11. zuzenketa. Behin bozkatuta, hau da emaitza:

Aldeko botoak: 7; Aurkako botoak: 17; Abstentzioak: 0.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

12. zuzenketa. Sergio Gómezek erretiraten du, aurreko emaitza ikusita.

13. zuzenketa. Sergio Gómezek zuzenketa azaltzen du. Ignacio M<sup>a</sup> Iraizoz zuzenketaren alde egingo duela dio, Departamentuak materialak ematea ulertzen du, baina ez du erabiltzera behartzen.

Santiago Álvarezek Guraso Elkarteak atal honetara gehitzea positibotzat jotzen du, eta honi, Estebe Petrizanek erantzuten dio ez duela arazorik ikusten zuzenketa onartzeko. Bozkatu ondoren, emaitza hau da:

Aldeko botoak: 15; Aurkako botoak: 2; Abstentzioak: 6.

Beraz, zuzenketa onartzen da.

14. zuzenketa. Sergio Gómezek zuzenketa azaltzen du. Ignacio M<sup>a</sup> Iraizozek dio zuzenketak ezinezkoa den zerbait planteatzen duela, eta ikastetxe batean matrikulatzen dena, bertako ideiak eta hezkuntza proiektuak onartzen dituela. Gainera,



ezin da aldez aurreko baimena lortu historia edo filosofiako, besteak beste, gai polemikoak emateko.

Zuzenketa bozkatu ondoren, hau da emaitza:

Aldeko botoak: 3; Aurkako botoak: 19; Abstentzioak: 2.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

15. zuzenketa. Sergio Gómezek erretiraten du, aurreko emaitzak ikusita.

16. zuzenketa. Sergio Gómezek zuzenketa azaltzen du, erreferentzia zentroak gehiegi mugatzen dituela proiektuaren testuak, eta gizarte ekimeneko zentroetan sarrera mugatzen duela, adibidez.

Ignacio M<sup>a</sup> Iraizozek alde bozkatuko duela aurreratzen du, nahiz eta, zentro hauek laguntza zentroak direla baina ez bakarrak, baino ez duen ulertu.

Zuzenketa bozkatu ondoren, ondoko emaitza jasotzen da:

Aldeko botoak: 6; Aurkako botoak: 16; Abstentzioak: 1.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

17. zuzenketa. Jasotako azalpenak direla eta, Sergio Gómezek erretiraten du.

18. zuzenketa. Sergio Gómezek, aurrekoa bezala, erretiraten du.

19. zuzenketa. Fernando Baraincak zuzenketa azaltzen du, eta bozkatu egiten da, ondoko emaitzarekin:

Aldeko botoak: 7; Aurkako botoak: 17; Abstentzioak: 1.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

20. zuzenketa. Bozkatzen da, ondoko emaitzarekin:



Aldeko botoak: 6; Aurkako botoak: 17; Abstentzioak: 1.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

21. zuzenketa. Jasotako azalpenak direla eta, Sergio Gómezek erretiratu egiten du.

Azkenik, 34/2016 irizpena bere osotasunean bozkatzen da, onartua dena ondoko emaitzekin:

Aldeko botoak: 17; Aurkako botoak: 7; Abstentzioak: 0.

Beraz, 34/2016 irizpena onartzen da.

Bozkeketa ondoren, Jesús M<sup>a</sup> Ezponda, Francisco José Flores, Sergio Gómez eta Fernando Baraincak boto partikularren aurkezpena azaltzen dute.

#### **7. 35/2016 Irizpenaren inguruko eztabaida eta, hala behar bada, onespena: Sarrigureneko F.D. proiektuaren gainekoa.**

Estebe Petrizanek Gobernuaren Akordio proiektuaren justifikazioa adierazten du, bi ikastetxe beharrezkoak direla ongi kudeatuak izateko, egungo ikastetxearen tamaina dela eta. Guraso Elkarte eta Udaletxearekin hitz egin zen, eta azkenean, erabakia ikastetxeak hizkuntza ereduaren arabera zatitzea erabaki da. Ondoren, aurkeztutako zuzenketa azterketa hasten da.

1. zuzenketa. Santiago Álvarezek bere zuzenketa azaltzen du. Uste du hasieratik Sarrigurenen beste ikastetxe bat eraiki behar izan zela, distantzia jakin batera, bi ereduak bi zentrotan eskaintzeko, hezkuntza proiektu bakar batekin, elkarbizitzari begira.



Estebe Petrizanek dio, Santiago Álvarezek dioen bezala, erabakia nahiko derrigorrezkoa zetorrela, bi eraikinak elkarrekin eginak zeudelako. Honetaz gain, edozein kasutan, bi eredu en familieek elkarbizitza komunitate bakarra eraiki behar dute.

Miren Aranoak dio bateragarria dela elkarbizitza kalitatezko hizkuntza murgiltze batekin. Ernesto Delás aurrekoarekin bat dator, eta eredu zko zatiketa ez duela elkarbizitza arazorik sortzen dio, euskarazko hizkuntza ahalmen hobea bermatuz.

Marisa de Simónek uste du eredu guztiak eskainiko ziren bi zentro berri eraiki ahal izan zirela.

Javier Albizuk prozesua parte-hartze handia izan duela baloratzen du, Eskola Kontseiluak ere baloratu behar duen alderdia.

Zuzenketa bozkatu ondoren, hurrengo emaitza jasotzen da:

Aldeko botoak: 5; Aurkako botoak: 11; Abstentzioak: 7.

Beraz, zuzenketa baztertzen da.

2. zuzenketa. Camino Buenok zuzenketa azaltzen du, akats bat zuzentzen saiatzen dena. Bozkatu ondoren, ondoko emaitza jasotzen da:

Aldeko botoak: 24; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 0.

Beraz, zuzenketa onartzen da.

3. zuzenketa. Alfredo Hoyuelosek bere zuzenketa azaltzen du, ondoren bozkatzen da.

Aldeko botoak: 19; Aurkako botoak: 0; Abstentzioak: 5.

Beraz, zuzenketa onartzen da.

Azkenik, 35/2016 irizpena, bere osotasunean bozkatzen da, ondoko emaitzarekin onartzen dena:

Aldeko botoak: 14; Aurkako botoak: 3; Abstentzioak: 5.



Beraz, 35/2016 irizpena onartzen da.

Bozkaketa ondoren, Marisa de Simónek boto partikular baten aurkezpena azaltzen du.

## **8. NHSTren batzordea**

NHST Batzordearen konklusiodun testua aste honetan bidaliko dela adierazten du Lehendakariak. Hauek, Eskola Kontseiluaren iritzia jasoko dute ekainaren saioan.

## **9. Langile Batzordearen idatzia – Nukleo Administrazioa (Zaintzaileak).**

Lourdes Larumbek Eskola Kontseiluari aurkeztutako idazkia azaltzen du, non, zaintzaileen kolektiboarentzako eskaintza formatibo egokia eskatzen duten. Batzuetan, zaintzaileei, burutzen duten formakuntza orduen erdia bakarrik aitortzen zaizkie.

Ignacio M<sup>a</sup> Iraizozek dio gai honek Kontseiluaren eskumenetatik at dagoela, eta idazkia ez lukeela bozkatuta izan behar. Juan Ramón Elorzek bat dator berarekin.

Lourdes Larumbek hezkuntza kalitatearen hobekuntzan izango dutela eragina idatzian planteatutako neurriak esaten du, eta honengatik bozkatua izan beharko lukeela. Ignacio Tonik zaintzaileen formakuntza eskaera CERMINeko eskaeratzat ere jotzen du.

Juan Ramón Elorzek esandakoarekin bat dator Pilar Elcarte eta zaintzaileak aurrean eskainitako formakuntza ikastaroetan parte-hartu dutela eta egindako ordu kopurua ziurtatu zaiela dio.



Francisco José Floresek, Idazkaria eta Lehendakaria bezala, idazkia ezin dela irizpendua izan uste du, Eskola Kontseilua arautzen duen Foru Legeak Kontseiluak irizpendu dezakeen gaiak mugatzen baititu, eta hauen artean ez dago zaintzaileen kolektiboa aurkeztutako eskaera.

Lourdes Larumberen ustez erabaki hau hasieratik esan behar zitzaion zaintzaileei esateko, Eskola Kontseiluaren iritzi ematearen zain, eta honengatik, Kontseiluak gain hau tratatzeko erak sortarazitako bere ondoeza jasota geratzea nahi du.

#### **10. Galde-eskeak.**

Ez daude.

Eta beste gairik egon gabe, Lehendakariak Osoko bilkurakideen parte-hartzea eskertzen du eta saioari amaiera ematen dio 22:00 orduetan.